

Gerra eta zentsura

JOAN MARI TORREALDAI



GERRA eta zentsura, bi kote zatietara izan da beti. Ez gutxiago gaur, Golkoko gerra-koan.

Komunikabideen aurreramenduak, sofistizazioa eta ahalguztidutasuna ezaguturik, oraingo honetan besterik gertatuko zela uste zuen askok. Tebistaz ikusiko genuen lehen gerra zela zioen, harrotasun-puntta batekin.

Eta zer da gertatzen ari dena?

Purrustan datoz albisteak. Sekula ez da hainbeste idatzi gerra bati buruz. Baina informaturik al gaude? Informazioaren pilaketak gehiegia desinformazioa dakar. Hori bateko. Eta besteko. Iarriagoa, zein da berri fidagarria?

Bai, egia da: komunikabideak geroz eta indartsuagoak dira, bapatekotasuna ezin handiago da. Indartsuagoa eta handiagoa, ordea, berriaren kontrola. Gerrari buruzko informazioa arraz kontrolaturik dago. Informazioa bera ere arma bait da. Nork daki jakin egiaz eta benetan zer gertatzen den hau? Peloponesoko bataialaz gehiago dakigula ematen du batzutan. Kazetari «free-lance» direlakoan malen-koniaz nago ni neu. Informatuaren sentsazio gehiago nuen hauen bidez, freskoagoak bait ziren berriak.

Komunikabide modernuen Akilesean orpoa non den ari gara ikusten Golkoko gerra dela eta: zentsura, kontrola. Zentsurak informazioa «kutsatu» egiten du. Eta, ondorioz, baldintzatu, baliogabetu, sinesgarritasuna kendu. Zentsuarekin akabo berri fidagarriak. Informazio zuzenean ahalbideak handienak direnean (edota direlako), are handiagoak dira iragazkiak eta kontrolak.

Boterearen zentsua berri eta boteretsuaren garaian gaude.

● EL CORREO ESPAÑOL

Sozioak eta opositorak

Ez dirudi oposizioa estrategiarik egokiena erresistentzia hutseko jarretara itzultzea denik. Ez luke hain jarrera aurkakoa eduki behar, analitiko-koagoa beharko luke izan, eta batez ere, euskal politikako aspektu garrantzitsuenei, adibidez estatutu garapenari, alternatibak eskaini. Gobernu zentralak, bestalde, PSEren iharduera taktikoei kasurik egin gabe, politikoki eta juridikoki ekiteko obligazioa du.

EDITORIALA / 1991-II-2

● DEIA

Herria esku onetan dago

Eska daitekeen den frentismo bakarra Euskal Herria ekonomikoki eta moraliki lur jota uzten duen indarkeria eta terrorismoari aurre egiteko borondateak biltzen dituen da. Errorenkak aipagarriak dira, baliabi-



FERRERES / LA VANGUARDIA / 91-4-31

deak nahikoak, ekipoak ego-kiak, ideiak tinkoak eta herria esku onetan dagoela behin eta berriz erakutsi duen gizon baten gain dago Lehendakaria. Zorionak, Lehendakaria!

EDITORIALA / 1991-II-2

● EL DIARIO VASCO

Babelgo Dorrea

Gobernu honek hiru helburu oinarriko ditu: lehena, Europari erroka egitea da, eta gure ekonomi egitura behar bezala

modernizatu eta eguneratu; bigarrena, batasun kulturala eta soziala gauzatu da. Hemen, desberdintasun sozialekin amaitzeko, jadanik hasia dagoen borrokarekin jarraitzea beharrezkoa dugu, eta euskal kultura eta hizkuntzaren integrazioa gure gizartearen lortzeko konprometua hartzea ere bai. Azken helburua batasun politikoa lortzea da. Indarkeriarekin amaitzea behar beharrezkoa dugu eta indarkeria erabiltzeari uko egin diotenen gizarteratzea lortu behar da.

Babelgo Dorreraraino igo zaigun oposizioaren aurrean, el-karriketak mantendu eta adostasuna bilatu beharko dugu.

JOSU BERGARA / 1991-II-2

● KUPATU

«Kuwait ondorengo irabazle eta galtzaileak»

Nahiko selektiboa den eskuhartzea, erabat higikorra eta piska bat mertzenarioa, sartze dago Bushen Amerikan, Panama, Kuwaiten eta segituan beste batzuetan. Amerikak defizita du aurrekontu eta kanpo merkataritzan, eta bere industria ez oso kompetitiboak, bere dolar eskasak, kaltetutako finantzak eskaintzen ez dioten tokia eskainiko diote arrek munduan. Eszenatokiaren arabera, Kuwaiteko galtzaileak, pentsatzen zen baino ugariagoak izango dira. Arabiar supergaltzaileen ondoan, polo erregionalek burujabetasuna lortu nahi dute, horiek arabiarak iraniarrak, turkiarrak edo israeldarrak izanik.

GHASAME SALAME / 1991-II-2

Ibiltari 4.

TXOMIN PEILLEN



PUTREAK zeruan ehunka, ezin jasaneko usaina sudurrean, han hor lur maeletan bufoalak bainatzen eta txabola,txabola; arkeologiaiazalantzat suntsituegiak, zikinegiak, itusuegiak direlako ez da «mixeria hirietan» sartzerik, eta zer dakusagu leku ederretan Calcutta hontan, espaloieko bizitza. Espaloien erdia denda baten mahaitxo, beste zati batean galtzadaren ertzetik, jende etzan lerrokada, eta ibiltaria, bidexior edo xenda batean bezala bien artean ibilki.

Goiza da, zuhaitz batetik jaisten da han lo egin duen gazte bat, lurretik jakitzen etzandakoak eta lerroan iturri batean jartzen goiz garbiketa eta ur edanaldi baten egiteko, gero beren jantzi bakarraren erdia xaboi puxka batekin garbitzen, beste erdia beste behin egiteko. Zer da jende horien jabetasuna, oihai txiki batean tolestu hagin garbitzeko zotza, burdin katilu bat, batzutan alpagatak, besterik ez, ...nortasun agiriak naski ez. Zergatik hainbeste jende ezin kontrolatutako hirian? Andore batek esaten digu. Bengal-herri bi erdi egin zenean erlijioagatik, alde batetik musulmanak kalamu ta jata ezin salduz geratu zirela ta besterik fabriketako hindustak harrien lantzeko ekarrik gabe, ehunmilaka langabe gertatu zen; gero aski ez balitz Bihar estadu hauzotik feudalismoari eta esklabotasanari ihes egiten duten nekazariak, milioika etorri dira hiri handi horrek daukan famarekin lan bila ta gose gorria arkitzen dutelarik.

Nork esan du, erlijiorik ez balitz gizona basakerian biziko litzatekeela? Nork esan du independentziak arazo guztiak zuzitzen zituela? Ez nik.

ZUZENDARIARI

Euskadiko partidu popularra

Nork pentsatuko zuen, pasadan hauteskundeetan, Partidu Popularrak, eslogan bezala, (Más de cien mil Vascos), ipiniko zuela eta (Vascos) hitza, haundiz. Pertsonak eta alderdi politikoak, denporarekin, aldatu gara eta autonomi bakoitzan, autonomi horren ohiturak, onartu eta errespetatu ditugu.

Alderdi Popularrak, osatzen dugun guztiak, euskal-dunak gara, noski, espainolak ere.

Euskadin, Partidu Popularrak, euskalduna da. Galizian, galegoa, Katalunian, katalana, etab.

Hauteskundeetan, apoiatu diguten pertsonak, gure ideiekin ados daude. PSE-PSOEK, autonomikoki, guk baino euskal programa txarrago bat dauka.

Euskadin, alderdi Popularrak bat behar da eta euskaldunak, alderdi hori osatuko dugu.

GETXOKO PARTIDU POPULARRAREN PARTAIDE BAT

Euskal anakhronismo orthographikoa

Bada, azal diezadala edo hobeki ahal balu explika, J.R. Etxebarria unibertsitateko profesore neure adiskideak (edo bertez edozeinek, zainari eskerdu egongo bait naitaio, nola J.L. Txillarde-gik edo hala euskal akademiburu J. Haritschelharrek) ea zer den euskarazko hitza omen dateken: «tsumiso».

Adiskide Etxebarria nik ez deat ukhatuko ukhatu behar ez nezakenik baina bai «tsumiso» euskarazko berba bat dena, eta halaber dudagabetarik eraiten «tsumiso» anakhronismo dela. Ikhus ezak hitzaren significantza greko etymologikoa.

Nik neure nivel personal ertain kulturalaz baizik ez baliatuz ba dakit zer diren: imposible, impotent, imperfecto, indirektu, insoluble, invisible, insensible, insoportable, insolent, indiziplinatu, intolerant, intransigente, indiskret..., versione, defensa, insektu, tensione, insulina, transistore, sensibillitate, persekutatu, inversore, Persia, ensalada, chau-

vinista, rizoma, revolver, radar, radio, reaktantzia, rotuladore, retorika, retina, rublo, round, rutina, reflektore... eta bertez anhitz hitz euskarazko. Ostera ote lirateke euskarazko hitz: (intentsible, intolent, insuturable, insoportable, insulina, intsektu, pertsiko... erretina, erubio, erizoma,...) baldin euskarazko hitzizat hartzen bagenitza, nola hik insumiso?

Hire behialako artikuluan, zeinetan astintzen hintuan ertzein beltzak zafatu hindutako unibertsitateko kampsuan, argudiatzen huan eta aipatzen mediku «forentsearen» agiria. Eta Durangoko euskal ferian elkhar ikhusiz, arrapaladan mintzatu gintuan nola euskaldunok orthographi konutuan egirik analisi diakronikoak, ondorioztatzen duguna dela konsekuentzia anakhroniko orthographikoa. Bat duk hererodoxo izatea nola «ni» naizateken eta berteza anakhroniko hala «hi» haizateken. Debate euskal kulturak behar duen hau ait ledi has, ait geneza euskaldunok balia!!!

E.GERRIKAGOITIA
(MUNITIBAR)

PERTSONAIA



Imanol Murua

Ekologia baldin bazen lehen horretarako aitzaki, Autobidea politikoei egin dute jolas toki. Diputadu laguna jarri behar dezuna lehen harria izaki, azkenekoa ipintzerako aspertuko da ederk.

JOKIN SOROZABAL

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOSE MIEL ZUMALABE

Gereentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEZ ETXEZAHARRETA
INAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzioa eta Talerra: ANTZA S.A. Industriadela, 01-02 Pablioko / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Publizitatea: Loloia, 14-1,3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Araba: San Antonio, 20-1,ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iraixe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuna. / 48001 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11